

**NUKFK BURUTU DUEN PROZESU  
PARTE-HARTZAILEAREN  
ONDORIOZKO DOKUMENTUARI  
EGINDAKO GOGOETA TEKNIKOAK**

**2017ko maiatzaren 31**



NUKFK burutu duen prozesu parte-hartzaitetik ateratako dokumentua dela-eta, honako gogoetak egin zaizkio.

● **Kontzejuak diren toki-erakundearen konfigurazioarekin eta tipologiarekin lotura duten gogoetak**

Nafarroako Gobernuaren proposamenaren arabera, eskumen eta baliabide guztiak eskuordetzeko berariazko balizkoari buruz ondorengo ekarpen teknikoak egin dira.

Sistema horren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren artikulazioa mendeko entitate batek berezkoa duena da; kasu honetan, udalaren mendekoa, eta, hortaz, bateraezina toki-erakunde izaerarekin.

Sistema hori bereziki bateraezina da egungo aurrekontu-egonkortasunerako araudiarekin; izan ere, aurrekontu-egonkortasunaren muga fiskalak kuantifikatzeko ondorioetarako, kontzejuaren egoera ekonomikoa eta udalarena, bere osotasunean, ezin dira bereizi.

Horrez gain, beste arazo bat ere gehitu behar zaio; alegia, udalak kontzejuen akordioak denboran eta forman beteko ote dituen, akordio horiek udalaren funtzionamenduaren eta antolakuntzaren barruan gauzatuko baitira.

● **Udalak diren toki-erakundearen konfigurazioarekin eta tipologiarekin lotura duten gogoetak**

Bi proposamenek udalari oinarrizko toki-erakundearen izaera ematen diote. Edonola ere, izaera hori desitxuratu samar gelditzen da Nafarroako Gobernuaren proposamenean, autonomia-kuotak eta zenbait eskumen kentzen baitzaizkio.

Kontuan izan behar dugu, oinarrizko toki-erakunde izaera horren ondorioz hain zuzen ere, udala dela konstituzionalki tokiko autonomia bermatua duen toki-erakunde bakarra. Halaber, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 46. artikulua ezartzen du Nafarroako udalek gutxienez Estatuko gainerako udalei, oro har, aitortzen zaien autonomia bera izanen dutela.

● **Udalen eskumenak direla-eta egiten diren gogoeta teknikoak**

Udalen eskumenei dagokienez, azpimarratu behar dugu Nafarroako Gobernuaren proposamenak berarekin dakarrela eskumen horiek gutxitzea, udalez gaindiko erakundeen esku uzten baititu horietako batzuk, bai legez, bai udalez gaindiko erakundeen organoek hala erabakita.

Legez eskualdeari esleitzen zaizkion eskumenen artean ditugu: goiko sareko ur-hornidura, hondakinen tratamendua eta gizarte-zerbitzuak.

Aldi berean, eskualde bakoitza sortzeko legeek eskualdeei beste eskumen batzuk esleitzen diezazkiekete, eta azkenik eskualde-mailako organoek "udalen beste eskumen batzuk

eskualdera pasatzea" erabaki lezakete, eskumen horiek betetzen zituzten udalen erabakia alde batera utzita.

Horri dagokionez, azpimarratu behar dugu eskumenak eskualdeari esleitzeko modu horrek berarekin dakarrela Nafarroako udalei beren eskumenak kentzea, kontuan izanik udal horiek gutxienez Estatuko gainerako udalei oro har aitortzen zaien autonomia izan behar dutela, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 46. artikulua xedatzen duenaren arabera. Halaber, eskumen-aldaketa horrek Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Jasangarritasunari buruzko Legeak ezartzen dituen mugak gainditzen ditu.

### ● Udalen finantziakzioa dela-eta egiten diren gogoeta teknikoak

Egungo diru-laguntza finalistak ordezkatzeko dituen funtsaren zuzkiduraren diseinuak finantzatu beharreko zerbitzuen zorroa, kasu bakoitzean ezar daitezkeen finantziakzio-premien moduluak edo adierazleak, eta berariaz finantzatu beharreko kostuaren portzentajea jaso behar ditu. Hori guztia, toki-finantzaketarako eredu orokorrekiko finantziakzio osagarria justifikatzeko duten helburuan arabera.

### ● Toki-erakundearen konfigurakzioa eta tipologia direla-eta egiten diren gogoeta teknikoak, udalez gaindiko erakundeetarako dagokienez

#### - *Eskualdeak sortzeari dagokionez*

Ildo nagusien dokumentuak eskualdea proposatzen du izatea tokiko maparen berrantolaketa gauzatzeko udalez gaindiko erakunde egokia.

Kontuan izan behar dugu eskualdea arauturik dagoela toki-araubideko oinarritzko legean, zehazki Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legeko (TAOL) 42. artikuluan. Aipatu Legean jasotzen diren beste toki-erakundeekin gertatzen dena ez bezala, eskualdeak sortzeko aukera autonomia-estatutuetan eskualde horiek sortzea aurreikusita duten autonomia-erkidego horietara mugatzen da.

Horrela, esan beharra dago Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak ez duela eskualdeak sortzea aurreikusten. Hala ere, Nafarroako Gobernuko ildo nagusien dokumentuak, estatutuaren aurreikuspen falta ikusita, eskualdeak sortzeko aukera defendatzen du udalez gaindiko toki-erakundeak arautzeari buruz Nafarroak historikoki izan duen eskumenean oinarrituta; horrek aukera emanen luke baita Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legeko (TAOL) ezartzen diren mugetatik haratago eskualdeak arautzea ere.

Eskualdeak sortzeko aukerari buruzko balorazio tekniko gehiago egin gabe, analizatzekoa da, ordea, bigarren afera hau: eskualdeak arautzeko aukera Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legearen (TAOL) mugak eta baldintzak kontuan hartu gabe.

#### - **Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legearen mugak eta baldintzatzaileak**

Horiek eskualdea sortzeko prozesuari eta eskumenei eragiten diete.

Prozedurari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legeko 42.2 artikulua xedatzen du eskualde bat eratzeko ekimena interesa duten udaletatik beraietatik sor daitekeela, eta, edonola ere, es dela eskualderik sortuko baldin eta hori osatuko luketen udalen bi bostenak berariaz aurka agertzen badira, betiere, kasu horretan, aurka dauden udal horiek eskualdearen lurraldeko hautesle-eroldaren erdia, gutxienez, badira.

Eskumen-esparruari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legeak ezartzen du eskualdeak sortzeak ez duela berarekin ekarriko udalek legeko 26. artikuluan aipatzen diren zerbitzuak (nahitaezkoak) emateko eskumena galtzea, eta halaber, ez du galaraziko 25. artikuluko 2. atalean zerrendatzen diren gai guztietan esku hartzea, guztiak ere udalak berezkoak dituen eskumenak izanik.

Udalez gaindiko beste erakundeentzat, mankomunitateentzat kasurako, ezartzen ez diren mugak dira, hain zuzen ere mankomunitateak (kasurako) ez bezala, eskualdea lurralde izaera handiagoa duen toki-erakundea baita, legez eratzten dena, ez udalen akordioz.

Bi muga horiek udal-autonomiaren printzipiotik, konstituzioz bermaturik, ondorioztatzen den berme instituzionalari erantzuten diote.

Mugaketei dagokienez, aipatu beharra dago jurisprudentzia konstituzionala aipatu beharra dago, zeinak, berme instituzional horretan oinarrituta, galarazi egiten baitu udalen eskumenak eskualdera pasatzea, udalak edukirik gabe uztea, eta eskualdeak udala ordezkatzeko. Horren haritik, Auzitegi Konstituzionalaren 214/1989 epaia, abenduaren 21ekoa, aipa daiteke.

Muga horiek guztiak ezar dakizkioke foru-erkidegoan instituzionaliza daitekeen eskualdeari, Nafarroak toki-erakundeak erregulatzeko historikoki izan duen eskumenak ez baitezake inoiz legitimatu eskualdea osatzen duten udalek beren autonomia galtzea, izan ere, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak bai jasotzen du bere 46. artikuluan hauxe: "Nafarroako udalek estatuko gainerako udalei oro har aitortzen zaien autonomia bera izanen dutela gutxienez".

Hortaz, Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legeko 42. artikuluan udalen autonomia lokalaren bermatzaile gisa aurreikusten diren mugak Toki Administrazioa Berrantolatze burutuko den edozein prozesutan errespetatuko dira nahitaez.

#### - **Mankomunitateak sortzeko debekua**

Beste aferetako bat mankomunitateak sortzeko debekua da.

Afera horri dagokionez, toki-erakundeak bat datoz: eskualdeak sortuta, zerbitzuak kudeatuko dituen toki-entitate bakarra eskualdeak izatea.

Nolanahi ere, "desiragarria" den helburu hori ez daiteke lor mankomunitate berriak sortzea debekatuta, udalek mankomunitatetan elkartzeko eskubidea Autonomia Lokaleko Europako Gutunaren (10. artikulua) eta TAOLeko 44. artikuluren arabera autonomia lokalak duen berezko eskubidea baita. Hortaz, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko aurrez aipatutako 46. artikuluen arabera, Nafarroako udalei ken ez dakiekeen eskubidea da.

- **Udalez gaindiko erakundeen eskumenak direla-eta egiten diren gogoeta teknikoak**

Berriro azpimarratzen dugu legez eta jurisprudenziaz ez dakizkiekeela udalei eskumenak murriztu.